

eGela PI ERABILTZeko BALDINTZAK

UPV/EHUK unibertsitateko kideen eskura jartzen du eGela PI izena duen irakaskuntza telematikorako plataforma. Tresna hau irakaskuntza ez arautuan laguntzeko tresna da, Gradu edo Master Ofizialekoak ez izateagatik, eGela plataforman sartzeko aukerarik ez duten irakasgaiantzat, alegia, Berezko Tituluak edo Ikasketa Osagarriak, besteak beste.

Plataforma honetan AZP eta Irakaslego eta Ikerkuntza Pertsonalari zuzendutako formaziorako ikastaroak eta Unibertsitatearen kudeaketa edo ikerkuntzaren inguruko beste edozein ekitaldiak ere sartu ahal izango dira, beti ere UPV/EHUko zerbitzu edo organo administratibo baten babesa badu (zerbitzua, saila, ikerkuntza taldea...).

Ondorioz, beharrezkoa da erabiltzaile orok jakitea nola txerta ditzaketen plataforman hirugarrenek egindako obrak, zer eskubide dituzten euren egiletzako obrei dagokienez, eta zer erabilera eman diezaieketen plataforman txertatutako materialei; betiere, jabego intelektualarekin lotutako arauak erabat errespetatuta.

Hemen finkatutako gidalerroak irakaskuntzaren zeinahi esparrutan aplikatzeko modukoak dira, baita ikasgela birtualetik kanpora ere.

1.- Zer da jabego intelektualak? Zer Legek arautzen du? Eta zer babesten du?

a) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako definizioaren arabera, "*Jabego intelektualak hainbat eskubide pertsonalek edo/eta ondare-eskubidek osatzen dute, egileari zein bestelako titularrei euren obrak eta zerbitzuak uzteko zein ustiatzeko aukera esleitzen dieten eskubideak*".

b) Jabego Intelektuala, hain zuzen, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabego Intelektualaren Legearen Testu Bateginean dago araututa (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-8930>).

c) Jabego intelektualak babesteko helburua, berriz, 1/1996 Lege Dekreturen 10., 11. eta 12. artikuluetan dago arautua.

- Jatorrizko obrak eta tituluak: jatorrizko sorkuntza literario, artistiko edo zientifiko guztiak, gaur egun ezaguna den edo etorkizunean asmatuko den edozein euskarri edo bitarteko ukigarri nahiz ukiezinen bidez adierazitakoak. Esate baterako, liburuak, diskurtsoak, hitzaldiak, txostenak, katedrako azalpenak, musika-konposizioak, eskultura, pintura-obrak, planoak, grafikoak, argazkiak eta ordenagailu-programak.
- Obra eratorriak:

- Itzulpenak eta egokitzapenak.
- Orrazketa-lanak, eguneratzeak eta oharrak.
- Laburpenak.
- Musika-moldaketak.
- Obra literario, artistiko edo zientifikoaren zeinahi eraldaketa.
- Babesa izango dute, halaber, bildumek eta datu-baseek.

d) Bestalde, Legearen 13. artikulua arabera, Jabeko Intelektualetik salbuetsita geratuko dira:

- lege- edo arau-xedapenak eta dagozkien proiektuak
- jurisdikzio-organoen ebazpenak
- erakunde publikoen ekintzak, hitzarmenak, gogoetak eta irizpenak
- aurreko testu guztien itzulpen ofizialak

2.- Zer material erreproduzitu edo eskaneatu eta txertatu dezaket eGela PI plataforman, inolako mugarik gabe?

- Jabego Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Lege Dekretuak babesten ez duena edo aplikazio-eremutik kanpo dagoena.
- Egilearen heriotzatik 70 urte baino gehiago igaro direlako jabari publikokoak diren obrak; betiere, egilea eta haren obra aipatuta, eta bertan inolako aldaketarik egin gabe.

3.- Zer baldintzatan erreproduzitu edo eskaneatu ditzaket Jabego Intelektualak babestutako eta aurreko atalean jaso gabeko obrak, eGela PI plataforman txertatzeko?

1.- Jabego intelektualaren helburua diren eta "**creative commons**" **lizentzien** edo antzekoen babesarekin argitaratutako obrak eta "open access" errepositorioetan bildutakoak erabili ahal izango dira; betiere, dagokien lizentzian xedatutako mugen arabera.

2.- Jabego Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen **apirilaren 12ko 1/1996 Lege Dekretuaren 32. artikulua** aurreikusten du obra berekietan txertatu daitezkeela besteren obren pasarteak, baldin eta irakaskuntzaren aipurako edo ilustraziorako egiten bada.

a) Aipurako eskubidea: egikaritu daiteke, honako baldintza hauetan:

- Obra bereki batean txertatuta egon beharko dute
- Pasarte bat (obra idatzien, soinuzkoen edo ikus-entzunezkoen kasuan) edo obra bakan bat (plastikakoak edo argazkigintza figuratibokoak) izan beharko dute

- Dagoeneko hedatutako obrak izan beharko dute (jendeari dagoeneko ezagutarazitakoak)
- Aipu gisa edo analisirako, iruzkinerako edo epaia emateko txertatu beharko dira
- Irakaskuntza edo ikerketa izan behar du horiek erabiltzearen helburua
- Txertatzeko dagoen helburuak arrazoitu beharko du aipuak gehitzea
- Ezinbestekoa izango da iturria eta egilea adieraztea

b) Irakaskuntzaren ilustrazioa: honako baldintza hauen mende egongo da:

- Irakasle batek egin beharko du
- Pasarte bat (obra idatzien, soinuuzkoen edo ikus-entzunezkoen kasuan) edo obra bakan bat (platikakoak edo argazkigintza figuratibokoak) izan beharko du
- Dagoeneko hedatutako obrak izan beharko dute (jendeari dagoeneko ezagutarazitakoak)
- Ilustrazio-helburuekin egin beharko da: berori txertatzeak lotura eduki behar du testuaren eduki pedagogikoarekin, lagungarria izan behar du gaia ikasteko edo testua hobeto ulertzeko, eta bere helburuak irakastea izan behar du
- Ikasgeletan egin behar da (ikasgela birtualak barne)
- Ez du merkataritza-helbururik izan behar
- Ezingo da erabili unibertsitate-eskuliburu edo antzeko gisa
- Ezinbestekoa izango da iturria eta egilea adieraztea

3.- Gainerako kasu guztietan, Jabego Intelektualaren Legeak babestutako dokumentuak, artikuluak edo liburuak oso-osorik edo partzialki erreproduzitzen dituzten fitxategiak txertatu ahal izango dira Plataforman; betiere, aurretik eskubideen titularrak horretarako baimena eman ostean.

Baimen hori emateko erabat edo partzialki lagatzeko kontratu bat sinatu beharko da, eta horrek ez dio inolako kosturik ekarriko Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari.

4.- Irakaskuntzarako interesekoak diren jabeko intelektualeko informazio edo obretarako sarbidea eman dezaket, obra bera erreproduzitu behar izan gabe?

Ikastaro birtualerako interesgarria den dokumentu bat webgune batean eskuragarri baldin badago, Probintzia Auzitegien irakaspen gehienek baimena ematen dute esteka hiperesteka bidez jasotzeko. Estilo zuzenak dio dagokion aipua ere aipatu behar dela, eta hala badagokio, testuari laguntzeko beharrezkoak diren iruzkinak ere bai.

Egilearen edo haren izenean eskubideak egikaritzen dituen pertsonaren jakinarazpen-frogagarria jasoz gero, esanez irakaskuntza-material horretan jasotako estekak behar bezala argitaratuta ez dagoen obra bati egiten diola erreferentzia, berehala ezabatu beharko da.

5.- eGela PI plataforman txertatu beharreko materialarekin lotuta kontuan eduki beharreko bestelako gai batzuk

Irakaskuntza-helburuekin **eGela PI plataforman** argitaratzen den zeinahi fitxategik (argazkizkoak edo bideo-grafikoak) errespetuz jokatu beharko du fitxategi horretan ageri direnen irudi pertsonalarekin, eta beharrezkoa izango da bertan ageri diren pertsonak espresuki emandako baimena izatea, inolako geografia-mugarik gabe eta denbora mugagabe; baimenik izan ezean, beharrezko neurriak hartuko dira identifikatuak izan ez daitezzen.

Material horietako edozein kentzeko jakinarazpen-frogagarria jasoz gero, kendu egin beharko da.

6.- Zer eskubide daukat osatu eta eGela PI plataforman txertatu ditudan materialen gainean?

Jabego Intelektualaren Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera obratzat jo daitezkeen materialen egileak (izan erabiltzaileak edo ikasleak) Lege horrek esleitutako eskubide guztiak izango dituzte.

7.- Zer erabilera eman diezaieket eGelan txertatutako materialei?








eGelan txertatutako obren egileak, dagokion lizentziaren bitartez, erabilera zabalagorako aukera ematen duenean izan ezik, gainerako kasuetan, txertatzearen arrazoi izan zen helburu akademikora edo irakaskuntza- eta prestakuntza-helburura mugatuko da horien erabilera, eta debekatuta egongo da zeinahi baliabideren bitartez osorik edo partzialki erreproduzitzea, eta baita zabaltzea edo hirugarrenei banatzea ere.

ADIERAZTEN DUT irakurri eta ulertu dudala honako dokumentu hau, eta konpromisoa hartzen dudala berau betetzeko eta nere gain hartzeko jabego intelektualaren eskubideak edo gidaliburuko beste zeinahi eduki urratzeagatik Unibertsitateari etor lekizkiokeen erantzukizunak eragin dituen pertsonari egotziko zaizkiola".

UPV/EHUraiko erabilera baldintzak eta zehaztapenak



CEDROren lizentziak baimendutako erabilerak: Errepertorioko liburu, aldizkari eta egunkarietako zatiak.

Onuradunak: UPV/EHUko irakasle-ikertzaile, ikasle eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonala.

	Digitalki erreproduzitu liburu edo kapitulu baten % 10 arte.
	Digitalki erreproduzitu aldizkari edo aldizkako argitalpen baten artikulu bat.
	Baimendutako kopiak ikasle, irakasle-ikertzaile eta AZPren esku jarri intranetean.
	Baimendutako kopiak posta elektronikoaren bidez igorri eta zabaldu, UPV/EHUko unibertsitarioen artean.
	Baimendutako kopiak euskarri digitaletan ezarri, hala nola, CD, biltegiaragailu ateragarri eta beste.
	Baimendutako kopiak behin inprimatu erabiltzaile bakoitzeko.
	Baimendutako kopiak barne dokumentazio eta aurkezpenetan (Power Point, Prezi, e. a.) erabili.

Liburu oso bat edo % 10a baino gehiago erabili nahi bada, jo ezazu www.conlicencia.com web gunera.

Bestelako erabilerak:

	Lizentzian zehaztutako eremuan erabiltzeko egilearen baimena duten lanak.
	Web gunetan eskuragarri den informazioarekiko estekak, jatorri legezkoak, egilearen eta lanaren aipua ondoan dela.

Eskaerak: Zalantzak izatekotan, bidal ezazu mezua hurrengo helbidera: ondarea@ehu.es

CEDRO erreprografiako eskubideen espainiar gunea da (www.cedro.org) eta liburu eta aldizkako argitalpenetako egile eta argitaratzaileen interes legitimoak defendatzen ditu, hauen lanak legez erabili eta zabaltzeko erraztasunak emanik.